

# GRAL

## GRADU AMAIERAKO LANA: IRAKASKUNTZA GIDA

**IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA**



GIZARTE ZIENTZIAK  
ETA KOMUNIKAZIO  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN

# GRAL IRAKASKUNTZA GIDA



Aitorpena – Ez komertziala – LanEratorririk sortu gabe (CC by-nc-nd 2.5 ES): egileak baimena ematen du bere lana kopianu, erreproduzitu, hedatu eta zabalkunde publikkoa egiteko, betiere benetako egilea aipatuta eta onartuta. Dena dela, ez zaio baimenik ematen horren lan eratorririk sortzeko, ezta lana komertzialez erabiltzeko ere.

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA  
Sarriena auzoa z/g  
48940 - LEIOA

## Aurkibidea

01 HELBURUAK .....	1
02 AURRETIAZKO BALDINTZAK.....	1
03 GAITASUNAK.....	2
04 LAN-ORDUAK .....	2
05 TUTORETZA.....	3
06 LANA EGITEKO IRIZPIDEAK .....	3
06.1 GRALAREN EGITURA .....	3
06.1.1 Ikerketa lanak .....	4
06.1.2 Proiektuak.....	4
06.1.3 Lan sortzaileak eta esperimentalak .....	4
06.2 ELEMENTU FORMALAK .....	5
06.3 ALDERDI ETIKOAK .....	6
07 DEFENTSA ETA EBALUAZIOA .....	6
07.1 EBALUAZIO-SISTEMA .....	6
07.2 EBALUAZIO IRIZPIDE ORIENTAGARRIAK .....	7
08 BIBLIOGRAFIA .....	9

# IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

| Gradu Amaierako Lanaren Irakaskuntza Gida

## 01 HELBURUAK

Gradu Amaierako Lanean (GRAL), jatorrizko proiektu, memoria edo azterlan bat gauzatu behar du ikasle bakoitzak banakako jardunean, zuzendari baten edo gehiagoren gainbegiratze-lanarekin. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduako ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

GRALak erakutsi beharko du ikasleak graduaren zehar landutako gaitasun teoriko, praktikoa, instrumental eta metodologikoak barneratu dituela. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lana tituluarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira eta oro har, ikaslearen ikasketa-arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizaritari, zientziari, teknologiari edo etikari lotutako gai garrantzitsuei buruzko gogoeta egin eta proposamenak eman ditzan, eta gogoeta eta proposamen horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.

## 02 AURRETIAZKO BALDINTZAK

**Gradu Amaierako Lanaren matrikula** egiteko ikasleak ondorengo baldintzak izango ditu kontuan:

- Unibertsitateak ikasturte bakoitzean ezartzen duen matrikula-epe orokorraren barnean edo kasuan kasuko ikasturtean zehar egingo da, ikastegiaren egutegiak zehaztutakoaren arabera.
- Horretarako, ikasleak beharrezko prezio publikoak ordainduko ditu, esleituta dituen kredituen arabera.
- Gradu Amaierako Lanaren matrikula egiteko ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana amaitzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.

### 03 GAITASUNAK

Gradu Amaierako Lanean txertatu eta garatu beharko dira Graduoko ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak. Hortaz, Gradu Amaierako Lanean garatu nahi dira tituluaren honako gaitasun orokor hauek:

- Ikus-entzunezko komunikazioaren diziplina (arteko) eremuaren testuinguruan teorien, kontzeptuen eta metodologiaren esanahia eta egokitasuna ulertzea eta ezagutzen jabe egitea.
- Ikus-entzunezko komunikazioaren arloan ingurune eta errutina profesionalen ezagutza eta esperientzia eskuratzea.
- Komunikazioko ekintzak, prozesu sozialak, testuak eta proiektuak aztertzea, interpretatzea, azaltzea eta balioestea modu kritikoan.
- Trebetasunak aplikatzea eta teknikak, teknologiak eta baliabideak erabiltzea ikus-entzunezko informazioko eta komunikazioko edukien eta prozesuen garapenean.
- Teoriak eta tresna metodologikoak aplikatzea praktikari hainbat prozesu eta testuinguru komunikatibotan.
- Iturri desberdinetako informazioa eta dokumentazioa bilatzea, hautatzea, hierarkizatzea eta aztertzea, edukia narrazio-modu eta -estrategia desberdinetara egokituz .
- Lanaren eta ikerketaren proiektuak, lorpenak eta emaitzak komunikatzea eta azaltzea etorriarekin, eraginkortasunez eta argumentatuta, komunikazioko genero, formatu eta bitarteko desberdinetan.
- Helburuak identifikatzera eta ekintzak planifikatzera bideratutako estrategiak proiektatzea eta diseinatzea, ikus-entzunezko komunikazioko eta informazioko edukien eta prozesuen garapenaren testuinguruan.
- Ikuspegi sortzaile berriak sintetizatzea, garatzea eta aplikatzea ikus-entzunezko komunikazioko arazoaren ebazpenari.

### 04 LAN-ORDUAK

Gradu Amaierako lanak 12 ECTS kredituko balioa du eta ikaslearen 300 lan-orduren baliokidea da (bertaratzekoak eta ezbertaratzekoak).

Aurrez aurreko orduak ikasleak jasotako mintegiei, tutoretzei eta defentsa publikoari dagozkio. Aurrez aurrekoak ez diren orduak, berriz, ikasleek lan autonomoari dagozkio; ordu horietan, ikasleak Gradu Amaierako Lana garatu, memoria idatzi eta defentsa publikoa prestatuko du.

## 05 TUTORETZA

Zuzendaria arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, baita ere lanaren jarraipena egiteaz eta garapenean hura orientatzeaz eta gainbegiratzeaz. Haren ardura da ere ezarritako helburuak eta graduko gaitasunak beteko direla bermatzea. Zuzendaritza lana bukatzean eta GRALa defendatu aurretik ikasleari eta proposatu epai-mahairi emango zaien txostena idatzi beharko du ere.

Tutoretza-lanaren saioak egutegi honen arabera egingo dira, gutxi gorabehera:

1. Saioa	Azaroa	Izena ematean izendatutako gai-arloaren baitako gaia zehaztea. Lan-egutegia.
2. Saioa	Abendua	Jarraipeneko lehen saioa.
3. Saioa	Urtarrila/Otsaila	Jarraipeneko bigarren saioa.
4. Saioa	Martxoa/Apirila	Jarraipeneko hirugarren saioa.
5. Saioa	Maiatza	Amaierako lana ematea tutoreari eta defentsa publikoa prestatzea.

## 06 LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

### 06.1 GRALAREN EGITURA

Oro har, Gradu Amaierako Lanek honako egitura hauetako bat izango dute:

1. Ikerketako, analisiko, berrikusketako edo gogoeta bibliografikoko lanak, teorikoak praktikoak, metodo zientifikoa jarraituz bere ikerketa objektuaren ezagutza objektibo, egiaztagarri eta egokia ematen duena.
2. Proiektuen garapena eta aplikazioa. Proiektu horiek ez dira azken obra batean gauzatzen, baizik eta gidalerro eta plangintza batzuetan .
3. Sormenezko eta esperimenezko lanak, sormen-prozesua azken lan batean gauzatzen dutenak.

### 06.1.1 Ikerketa lanak

Honako egitura izango dute, orientazio moduan:

- Azala: lanaren izenburua, egilea, zuzendaria, gradua eta ikasturtea.
- Laburpena (250 hitz) eta gako-hitzak
- Aurkibidea: orrialde-zenbaketa; beharrezkoa izanez gero, taulen eta grafikoen aurkibidea gehi daiteke.
- Sarrera: ikerketaren xedearen aurkezpena eta zehaztasuna, gaiaren egoerari buruzko laburpena, lanaren helburuen zehaztapena, lan-hipotesiak (baldin badaude).
- Metodologia: metodologiaren zehaztapena eta ikerketa xedearekiko duen egokitasunaren azalpena.
- Garapena: Ikerketa-prozesuan lortutako emaitzak.
- Ondorioak: sarreran planteatutako helburuekin modu koherentean ordenatuak.
- Erreferentziak: testuan aipatutako liburuak, aldizkari zientifikoetako artikuluak, tesiak, web orriak, etab.
- Eranskinak: taulak, irudiak, gidoiak edo zeinahi material osagarri. Lanaren originaltasuna adierazten duen dokumentu oro gehituko da eranskinean; elkarrizketak, datu-baseak, hau da, epaimahaiarentzat egindako lanaren froga izan daitekeen guztia. Informazio hori ematean iturrien anonimotasuna bermatuko da eta ikerkuntza zientifikoaren irizpide etikoak errespetatuko dira.

### 06.1.2 Proiektuak

Proiektuaren txostena egitura orientagarri honen arabera egituratuko da:

- Azala: lanaren izenburua, egilea, zuzendaria, gradua eta ikasturtea.
- Aurkibidea: orrialde-zenbaketa; beharrezkoa izanez gero, taulen eta grafikoen aurkibidea gehi daiteke.
- Sarrera: proiektuaren, helburuen eta testuinguruaren eta aurrekarien aurkezpena eta zehaztasuna.
- Garapena: egin beharreko lanaren faseen plangintza eta deskribapena.
- Ondorioak: autoebaluazioa, egindako lanaren mugen deskribapena eta etorkizunerako proposamenak.
- Erreferentziak: testuan aipatutako liburuak, artikulu zientifikoak, tesiak, web orriak, pelikulak, audioak, eta abarren zerrenda.

- Eranskinak: taulak, irudiak, gidoiak edo zeinahi material osagarri. Lanaren originaltasuna adierazten duen dokumentu orogehitukoda eranskinean; elkarrizketak, datu-baseak, hau da, epaimahaiarentzat egindako lanaren froga izan daitekeen guztia.

### 06.1.3 Lan sortzaileak eta esperimentalak

Egindako lana azaltzen duen memoria bat erantsita izan behar dute eta memoriaren egitura honakoa izan daiteke, orientazio moduan:

- Azala: lanaren izenburua, egilea, zuzendaria, gradua eta ikasturtea.
- Aurkibidea: orrialde-zenbaketa; beharrezkoa izanez gero, taulen eta grafikoen aurkibidea gehi daiteke.
- Azalpen memoria: ideien jatorria, gaiaren interes eta testuingurua, autorearen helburuak eta nahiak (zer agertu nahi izan da) ikuspegiaren justifikazioa (zergatik horrela).
- Ikus-entzunezko erreferentziak: dokumentazioa, aurrekariak, inspirazio iturriak.
- Lanaren kronograma eta prozesu sortzailea.
- Ondorioak: lanarekin garatu diren tituluko gaitasunekin lotuta azalduak
- Erreferentziak: testuan aipatutako liburuak, aldizkari zientifikoetako artikuluak, tesiak, web orrialdeak, pelikulak, audioak etab.
- Eranskinak: Egileak interesgarritzat jo dezakeen edozein gehigarria. Lanaren originaltasuna adierazten duen dokumentu oro gehituko da eranskinean; elkarrizketak, WIP edo making of-aren dokumentuak edo epaimahaiarentzat egindako lanaren froga izan daitekeen guztia. Lan sortzaile motaren arabera beste atalak gehitu daitezke: sinopsia, pertsonaien garapena, gidoi literario eta teknikoak etab.

Lan sortzaile motaren arabera beste atalak gehitu daitezke: sinopsia, pertsonaien garapena, gidoi literario eta teknikoak etab.

## 06.2 ELEMENTU FORMALAK

- Gradu Amaierako Lanaren luzera 10.000-12.000 hitzekoa izango da ikerketa-lanetarako eta proiektuetarako, eranskinak eta azala edo erantzukizunpeko adierazpenak barne hartu gabe. Bestalde, lan sortzaileen eta esperimentalen memoriek ez dituzte 5.000 edo 6.000 hitz baino gehiago izango, salbuespen bereberekin .
- Bibliografia modu egokian aipatu behar da, estandarra den estilokoaren bati jarraituz, adibidez, APA, UNE Harvard edo Fakultatean egindako "[Gizarte eta Komunikazio Zientzietan Bibliografia eta Aipuak Txertatzeko Moduari Buruzko Gidaliburua](#)".

- Taulek zenbakituta eta izendatuta egon behar dute eta horren iturriak identifikatuta egon behar dute.
- **Erabat debekatuta dago testuen zatiak hitzez hitz idaztea** (izan liburuetakoa, aldizkari zientifikoetako artikuluetakoak, tesietakoak, web orrietakoak, etab.), baldin eta ez bada behar bezala aipatzen testuan alde zurretik eta ez bada identifikatzen beraz lortzen den iturria. Bestela, plagiotzat hartuko da eta lanak zero kalifikazioa izango du. Ikasleak jakin behar du Fakultateko irakasleak eskura dituela plagioari aurre egiteko eta detektatzeko tresnak, bai tutoretza prozesuaren zehar bai ikasleak GRALa bukatu eta aurkezten den unean.

### 06.3 ALDERDI ETIKOAK

Ikerketaren etikari dagokionean eta lanaren izaera horrela eskatzen badu, UPV- EHUko Gizakiekin ikerketarako Etika Batzordeak zehaztutako irizpideak eta aholkuak izango dira kontuan. ([TFG\\_Informe CEISH 2017](#))

## 07 DEFENTSA ETA EBALUAZIOA

Ikasleak GAUR plataforman defentsa eskatuko du eta ADDI plataforman igoko du Gradu Amaierako Lana ikastegiko [GRAL egutegiak](#) xedatutako epean. Lanaren nolakotasunak bestelako bitartekoren bat eskatzen badu Dekanotzan utziko ditu lanaren lau kopia.

Gradu Amaierako Lanaren defentsa aurrez aurre egin beharko du ikasleak.

Ikasle bakoitzak bere Gradu Amaierako Lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak aurkeztu beharko ditu. Eta, ondoren, epaimahaiko kideek egin eta eskatu ahal izango dizkioten galdera, azalpen, iruzkin eta iradokizunei erantzungo die. Lana aurkezteko ppt edo bestelako formatoan prestatutako aurkezpena erabil ahal izango du. Gradu Amaierako Lanaren defentsak, gehienez ere, 20 minutuko iraupena izango du, eta honela banatuko dira: 10 minutu lana aurkezteko eta beste 10 epaimahaiaren hitzak eta galderak eta ikaslearen erantzunetarako.

### 07.1 EBALUATUKO DIREN ATALAK

- Lanaren prozesuaren ebaluazioa: zuzendariaren txostena da abiapuntua. Lana ebaluatzean epaimahaiak kontuan izango du.
- Entregatutako dokumentuen ebaluazioa.
- Ahozko defentsaren ebaluazioa.



## 07.2 EBALUAZIO IRIZPIDE ORIENTAGARRIAK

### 1. Lanaren prozesuaren ebaluazioa (Zuzendarien txostena):

Ebaluatuko da, besteak beste, lanaren interesa, konplexutasuna eta originaltasuna, ikaslearen arduraldia eta inplikazioa eta epeak betetzea Gradu Amaierako Lana egitean.

### 2. Entregatutako dokumentuen ebaluazioa

#### a Ikerketa Proiektuen kasuan

- Aztergaia hautatzea eta justifikatzea: Argitasuna aztergaiaren aurkezpenean (arazoa eta helburu orokorra), interesa eta gizarte-errealitatearen beharrei erantzutea.
- Gaiaren egoera eta esparru teorikoa: Gaiaren eta/edo esparru teorikoaren garapen logikoa, antolaketa eta lanketa pertsonala. Helburuen eta hipotesien (baldin badaude) koherentzia (baldin badaude).
- Diseinu metodologikoa: Metodologia helburuetara egokitzea. Informazio-iturrien eta datuak biltzeko eta aztertzeko prozeduraren azalpen zehatza.
- Emaizak eta datuen analisia eta ondorioak: Zorroztasuna analisian, argitasuna emaitzen aurkezpenean eta ondorioen sakontasuna.
- Idatziaren kalitatea: Idatzizko adierazpen zuzena eta argia. Aipamen eta erreferentzia bibliografikoen estilo zehatz bat aukeratzea eta eta zuzen erabiltzea.

#### b Proiektuen kasuan

- Proiektuaren hautaketa eta justifikazioa: Proiektua eragin zuen hausnarketa argi azaltzea, Ideia kontzeptualizatzeko beharrezkoak diren galderen planteamendua, ideia eta helburuen garrantzia.
- Testu- eta ikus-erreferentziak bilatzea eta dokumentatzea: Aurrekariak berrikustea eta lanaren xedearen garrantzia erakustea, testu eta ikus-erreferentzia egokiak ematea.
- Sormen-prozesuaren diseinua eta garapena: Proiektu motari egokitutako faseen proposamena, helburuetara egokitutako plangintza.
- Kalitatea eta koherentzia teknikoa, artistikoa eta sortzailea, eta proposamen artistikoaren zehaztasun kontzeptuala: Proposamenaren originaltasuna, planteamenduaren sendotasuna eta egitura-logika, ikuspegia eta tratamendu artistikoa proposatutako ideia egokitzea, proiektuaren memoriaren eta txostenaren kalitatea eta garapena eta adibidearen kalitate teknikoa (halakorik bada).  
Idazketaren kalitatea: Idatzizko adierazpen zuzena eta argia. Aipamen eta erreferentzia bibliografikoen estilo zehatz bat aukeratzea eta zuzen erabiltzea.

#### c Lan sortzaile eta esperimentalen kasuan

- Testu- eta ikus-erreferentziak bilatzea eta dokumentatzea: Aurrekariak berrikustea eta lanaren xedearen garrantzia erakustea, testu eta ikus-erreferentzia egokiak ematea.
- Sormen-prozesuaren diseinua eta garapena: Proiektua eragin zuen hausnarketa argi azaltzea, ideia kontzeptualizatzeko beharrezkoak diren galderen planteamendua eta lanaren plangintza egokia.
- Kalitatea eta koherentzia teknikoa, artistikoa eta sortzailea, eta proposamen artistikoaren zehaztasun kontzeptuala:

Proposamenaren originaltasuna, diskurtsoaren sendotasuna eta egitura-logika, ikuspegia eta tratamendu artistikoa proposatutako ideiara egokitzea.

- Kalitate teknikoa.
- Idazkeraren kalitatea: Idatzizko adierazpen zuzena eta argia. Aipamen eta erreferentzia bibliografikoen estilo zehatz bat aukeratzea eta zuzen erabiltzea.

### 3. Defentsaren ebaluazioa

#### a. Aurkezpenean erabilitako baliabideen kalitatea.

- Ahozko komunikazioaren jarioa eta hitzik gabeko komunikazioaren egokitasuna: begirada, bolumena, keinuak. Trebetasuna, interesa eta segurtasuna erakustea.
- Baliabidea osagarrien egokitasuna: irudiak, adibideak, testu-aipuak, etab.

#### b. Adierazpenaren argitasuna.

- GRALean egindako ekarpenen argumentazio logiko, sintetiko eta ordenatua.
- Terminologia egokia erabiltzea.
- Aurkezpena emandako denborara egokitzea.

#### c. Epaimahaikideen galderak ulertzeko eta erantzuteko gaitasuna.

- Ebaluatzaileen iruzkinekiko arreta eta interesa.
- Egindako galderei erantzuteko erraztasuna eta egokitasuna.

## 08 BIBLIOGRAFIA

### OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Aumont, J. (2005). Irudia. Bilbo: UPV/EHU (traducción española (1992) La imagen, Barcelona: Paidós).
- Barroso, J. (2008). Realización audiovisual. Madrid: Síntesis.
- Berganza, M.R. y Ruiz San Román, J.A. (Coord.) (2005). Investigar en comunicación. Guía práctica de métodos y técnicas de investigación social en comunicación. Madrid: McGraw-Hill.
- Bordwell D. y Thompson K. (2011). Arte zinematografikoa. Bilbo: UPV/EHU.
- Canet, F. eta PRÓSPER, J. (2009). Narrativa audiovisual. Estrategias y recursos. Madrid: Síntesis.

### SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

- Arana, E. (2010). Estrategias de programación televisiva. Madrid: Síntesis.
- Aumont J. y otros (1995). Estética del cine: espacio filmico, narración, lenguaje. Barcelona: Paidós.
- Babbie, E. (1996). Manual para la práctica de la investigación social. Bilbao: Desclée de Brouwer.
- Barroso, J. (1998). Técnicas de realización de reportajes y documentales para televisión. Madrid: IORTV.
- Bazin, A. (1999). ¿Qué es el cine? Madrid: Rialp.
- Bernal, F. (2003). Técnicas de iluminación en fotografía y cinematografía. Barcelona: Omega.
- Bryson, N. (1991). Visión y pintura. La lógica de la mirada. Madrid: Alianza.
- Camino, J. (1997). El oficio de director de cine. Madrid: Cátedra.
- Castillo, J.M. (2004). Televisión y lenguaje audiovisual. Madrid: IORTV.
- Castro De Paz, J L. y Pena, J. (2005). Cine español. Otro trayecto histórico. Valencia: Ediciones de la Filmoteca.
- Chion, M. (1988). Cómo se escribe un guion. Madrid: Cátedra.
- Fernandez Diez F / Martinez A (1998). Manual básico de lenguaje y narrativa audiovisual. Barcelona: Paidós.
- Martínez De Sousa (2012). Manual de estilo de la lengua española, Gijón: Ediciones Trea.
- McKEE, R. (2002). El guion. Barcelona: Alba. Millerson, G. (2006). Telebista produkzioa. Bilbo: UPV/EHU.
- Murcia, F. (2002). La escenografía en el cine (El arte de la apariencia). Madrid: Fundación autor.

Polidoro, P (2016). ¿Qué es la semiótica visual? Bilbao: UPV/EHU.  
Torreiro, C. y CERDÁN, J. (2005). Documental y vanguardia. Madrid: Cátedra.  
Weinrichter, A. (2004). El cine de No ficción. Desvíos de lo real. Madrid: T&B Editores.  
Zunzunegui, S. (1989). Pensar la imagen. Madrid. Cátedra.  
Zunzunegui, S. (2002). Historias de España: de qué hablamos cuando hablamos de cine español. Valencia: Institut Valencià de Cinematografia Ricardo Muñoz Suay.  
Zunzunegui, S. (2014). Analizar la narración. Introducción a las formas narrativas. Madrid: Biblioteca Nueva.

#### ALDIZKARIAK

Archivos de la Fílmoteca, 57-58 zemb. (Después de lo real, I eta II aleak), 2007ko Urria - 2008ko otsaila.  
Arte y Parte. Revista de arte ([www.arteyparte.com/](http://www.arteyparte.com/)) Caimán. Cuadernos de Cine  
Cahiers du Cinéma  
Descubrir el ARTE ([www.descubrirelarte.es/](http://www.descubrirelarte.es/)) Documentary (<http://www.documentary.org>) DOX – European Documentary Magazine.  
Lápiz ([www.revistalapiz.com](http://www.revistalapiz.com))  
Revista de cine documental (<http://www.revista.cinedocumental.com.ar/>)  
Revista de estudios de Comunicación ZER. UPV-EHU  
UZTARO. UEU

#### INTERNET HELBIDE INTERESGARRIAK

[www.abcgallery.com](http://www.abcgallery.com) <http://www.abcguionistas.com>  
Barlovento Comunicación <http://www.barloventocomunicacion.es>  
<http://www.documentary.org>  
Euskal Irrati-Telebista: <http://www.eitb.eus> <http://www.gidoi.com>  
[www.googleartproject.com](http://www.googleartproject.com)  
Kantar Media <http://www.kantarmedia.es> [www.puntodevistafestival.com/](http://www.puntodevistafestival.com/)  
Radiotelevisión Española: <http://www.tve.es>

#### ESTILO GIDAK

<http://www.berria.eus/estiloliburua/>  
<http://www.berria.eus/estiloliburua/> <http://www.efes.es>

<http://www.euskaltzaindia.eus> <http://www.fundeu.es>  
<http://www.hiztegia.eus> <http://www.rae.es>  
UPV/EHU-ren kontsultagunea: hizkuntza-baliabideak:  
<http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/>